

Pello Apezetxea

APEZA

Euskal Eliza abertzalea?

Euskal Telebistako mahainguru batean, berriki, galdera hau hartu zuten gai nagusitzat: Abertzaleegia al da euskal Eliza? Harrigarri samarra iruditu zitzaidan, lehen unean, galdera. Baina ez da hain aldrebesa. Gehiago erranen nuke, interesgarria ere badela, eta, gainera, onuragarria bilakatzen ahal dela horren inguruko gogoeta.

Dena den, abertzale hitzaren erranahia argitu beharko genuke lehenbizi. Euskaltzale euskara maite duenari deitzen diogu, euskara landu, erabili eta zaintzen duenari. Abertzaleak aberria du maite, aberria du zaintzen, aberriaren kultura eta hizkuntza erabili eta lantzen ditu. Hauek biak lotuak daude, abertzale ez da izaten ahal euskaltzale izan gabe, euskal aberriaren izaeraren eragile eta alderdi bat euskal hizkuntza baita. Abertzaleak, herriaren iza-tea eta herriak duena zaintzen, lantzen eta bizitzen du. Euskal Elizak maite du aberria eta euskara? Zaintzen, lantzen eta garatzen ditu Euskal Herria, euskal kultura eta euskara?.

Euskal Eliza erraten dugunean ere, zehaztu beharko dugu nortaz ari garen. Eliza Kristoren segitzailen komunitatea dela onartzen badugu, komunitate horretan badira buru eta aginta-



DANI BLANCO

ri direnak, instituzioa deitzen duguna, eta badira sinestun taldeak. Abertzaleak dira apezpikuak, apezak, fraideak eta sinestun taldeak? Zehazten joanen gara. Apezpikuak, ia denak, kanpotik bidaltzen dizkigute, hemengo kultura ezagutzen ez dutenak, hemengo hizkuntza ez dakitenak, herriaren eskakizunak ulertzeko gai ez direnak. Abertzaleak dira, baina abertzale espainolak. Fernando Sebastian, Ricardo Blazquez, Miguel Asurmendi apezpikuak horrelakoak dira. Francisco Perez artzapezpikua ere espainola da, baina bere jarreraz oraindik gehiegi ez dakigu.

Eta zer erran apez eta fraideez? Eta sinestun taldeaz? Ez zait iruditzen sobera ausarta izan behar denik gehienak euskal abertzaleak ez direla errateko. Sinestedunen artean, apezak eta fraideak barne, aunitz da euskara balioztatzen ez duena. Aunitzentzat hizkuntza tresna hutsa da, soilik kristau mezua adierazteko tresna; euskarak sinestearekin lotura zuzenik ez duela pentsatzen dute; euskara eta Ebanjelioa ez daudela lotuta. Eta gutxiago, oraindik, Euskal Herria izatea eta sinestea. Euskal Eliza abertzalea al da? Euskal Elizan abertzaleak badira. Baina Euskal Eliza ez da abertzalea, nire iduriko. ■

«
Apezpikuak, ia denak, kanpotik bidaltzen
dizkigute, hemengo kultura ezagutzen ez
dutenak, hemengo hizkuntza ez
dakitenak, herriaren eskakizunak
ulertzeko gai ez direnak. Abertzaleak
dira, baina abertzale espainolak
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza

Gogoan dut



Orain hogeita bost urte-tik gora Donibane Lohizune eta Ziburu artean bertako musika taldeen-tzat antolatu kantaldiko pasadizoa. Hamabost

egun lehenago kantaldia emana genuen Donibaneko Elizan, bertako koral batekin batera. *Txomin eta Ramuntxo* kantua, Baigorriko gaiteroen laguntzaz emana izan zen bertakoen emozioz aretoa lehertu zuena. Entzulegoaren gehiengo erdalduna bazen ere, tximista legez hartu zuen gure mezua eta horrela adierazi zigun bere txalo luze beroan. Ez zitzaion erretoreari gustatu eta hurrengo kantaldian gure parte hartzea eragotzi zuen. Beste talde guztiek onar-

tu egin zuten erretorearen txantxia, eta kantaldia burutu zuten, erretoreari beren duintasuna eta lotsa erakusteko aukera galduz.

Oraingo hauteskundeetan berdintsu gaude. Alderdi Legearen aurka daude gehienak, bere aplikazioan ezik. Legea astakeriatzat dute baina ondorioak onartzen dituzte, kaltetuak bakarrik utziz parte hartu ezinik. Banuen nik nire zozoan aukera hau baliatuko zutenaren esperantza, eta denak ala inor ez aplikatzeko aski lotsaren jabeak izanen zirela sinetsi nahi nuen. Ez da horrela gertatuko eta aukera galduko dugu Espainiako Estatuari aurre egiteko, nor izan beharko genukeen erakusteko. ■